

Paulo Ezpeleta
Aretxabaleta, Gipuzkoa (1923)

Aurkibidea

Biografia

"Taberna berrikoak" deitzen zieten, taberna eta harategia zituzten eta. 4 anaiek mutikotatik lagundu behar izaten zuten bai tabernan eta bai harategian. Jesuita ikasketak egitera joatekotan egon zen, baina azkenean beldurtu eta etxean geratu zen. Hala ere, mutikotako denbora elizari lotuta pasa zuen, lehenbizi meza-mutil lanetan ibili baitzen gerrara arte, eta geroago, "presidente de los tarsicios" beste hiru urtean. 14 urterekin Arrasaten hasi zen lanean "Unión Cerrajeran", baina aita eta aitona zerra jarri zutenean bera ere hara joan zen. Pilota txapelketetan ibilia da eta kanpoan ere asko jokatu zuen (Errioxa, Salamanca, Valladolid...). Ehizarako zaletasuna ere mutikotatik izan du.

Zintak

ARE-022

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ezpeleta, Miren
- **Data:** 1991-01-01

- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

Pasarteak

1. Don Santiago maisua etxean apopilo

- **Erref:** ARE-022/001
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

4 anaia ziren. "Taberna berrikoak" deitzen zieten. Taberna eta harategia zituzten eta mutikotatik han egon beharra izaten zuten. Aitona baserritik etorria zen eta ez zuen ikasketarik. Don Santiago irakaslea apopilo zuten etxean eta hark irakatsi omen zion irakurtzen eta idazten ezkondu eta gero. Eskolatik ihes egiten zutenean maisuak aitonari kontatzen zion, honek ikasketei garrantzi handia ematen zien eta.

Transkripzioa

-Atxabaletan gu jaixo gintzen ba "Taberna Berrikua", ezta, Taberna Berrikua. Lau anai-arreba ta mutikotatik ba karnazerixan eta tabernan; bixak batera azen da gure aitta ta aittajauna ta betik mutikotan aittajaunak eskolara (barik) ezin gauen eiñ, zeatik eze betik, ez zakixen ba berak, basarritik etorritta euen gure aittajauna, Higinio, eta ez zakixen eskribiduten eta leiduten bez. Da hartu euen, apopillo maistrue euen, Don Santiago. Da harek ezkondu gero erakutsi etsen sumar, restar eta honek danok, eskribiduten. Ta guri orduen esaten oskun: "Mutikuak!, ikasi gero, e!, hemen tontua neu nok bakarrik". Gero mutikuak etxetik urten eskolara fateko da beste batzuekin nahasi ihes eiñ ezker, Don Santiagok gure aittajauna Higiniori esaten utsen: "Paulo ezta etorri gaur eskolara, gaur harek ihes eiñ dau. Asi ke kontuak hartu". Aittak baiño oinddiokan aittajaunak zer gehixao eukitten auen. Da, klaro, berak pa atara zittuen Tia Blanca ta maistra, Tio Joxe ta zerien, ezta. Eta harek gure auen guk pe ikasi gero ba zeozer izan gaittezen.

2. Jesuita joan beharrean, monagilotarako geratu

- **Erref:** ARE-022/002
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:01:30. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Euren tabernan era guztietako jendea egoten zen: anarkistak, sozialistak... Orduan ez zegoen txoke politikorik. Jesuita ikasketak egitera joatekotan egon ziren bera eta anaiak, baina tabernan egoten ziren gizon batzuek beldurra sartu zioten. Azkenean, etxean geratu eta monagilo-lanak egiten zituen.

Transkripzioa

-Tabernan han jente asko egoten zan, da gure etxia zan itxuria danen soziedadia. Han egoten zien komunistak, anarkistak, nazionalistak, karlistak eta danak. Orduan ez euan hainbeste politika, e, baiña honek Eustakio, San Berde, Katxo eta ba horrek egoten zien betik han. Euren botillatxue eo pitxartxue hartu ta zeozer jan da hantxe. Ta klaro, ia mutikue haundi eitten ekin nintzenian monagillue. Gure ama be ba beti elixan egoten zan ba sartuta, da hango parrokuaz da koadjutoriakin da oso laguna zan, da mutikua monagillo. Da genguzen ba lau: Jexus Atxa, Lorentxo Galdos Donostian da Jesuitetan, Felix Atxa da ni. Lau monagillo. Da, klaro, honek abadiok, Atxabaletan azenok, anai bat aukien jesuita zerien, Azkoittin edo eztakitt nun. Eta harek eitten auen ba danak zerera, jesuittetara. Mutikuok batzuk fraille ta abade ta; honek jesuita. Gu laurok ba fatekuak gintzen. Laurok fateko ta Felix eo Jexus eta Lorentxo zien haunditxuenak. Gero zan Felix eta gero ni. Horrek fan zien bixok. Han tabernan azen Eustakio ta konpañia, ta guri be aillegau jakun ba fateko zerian ba, juniuan edo hola, bueno ba ia oktubrian kursue ekitzeko ta fateko. Honek Eustakiok eta, zela zien elixara faten ez zienak edo hola, "gorri antzak" esaten dana, ba haik esaten usten: "Baiña jesuita hoia tontu hori? Ez hai fan bestela kapauko aue gaiñera! Han kapau eitten juek fraille faten dana" (....) Orduen ba mutiko txikixa zela nintzan, sustau ero. Aittak eta amak pe ez euken gogo haundirik fateko, baiña ia papelak eindde. -Amak be ez? -Ez, abade ta ez, jesuita ta ez. Etxian, elixara fan bai baiña etxetik.

3. Monagilo egon zeneko pasadizoa

- **Erref:** ARE-022/003
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:08:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Monagiloek okerkeriak egiten zituzten. Aretxabaletako abadeen loba bat etortzen zen osabengana uda pasatzera. Beraiek San Frantziskoren antza hartu zioten eta baita halaxe esan ere. Don Esteban abadeak bi anai gazteei egundoko jipoia eman zien. Lagunei kontatu zienean ze komentario egin zizkieten. Gerra hasi artean egon aritu zen monagilo lanetan.

Transkripzioa

Eta hantxe monagillo. Eta gero monagillo gengozela ba betik okerrak, monagilluek okerrak. Eta honek abadiok eukien loba bat. Franzisko Maria ero eztakit zela euken izena, Eibarren bizi zan anai batena, eta injinero ikasten ero ebillen. Da hau etortzen bakaziñuetan Atxabaletara, tiuengana. Basarri baten Basaben bizi zien ba. Da hara faten zan, Francisco Maria zan. Da gu ba sakristixan monagillo bixok ba Felix da ni txikixok, eta, klaro, bat

faten zan seitterdieten, bestia zazpiretan, bestia zazpitterdieten da bestia zortziretan; lau monagilluok, ezta, eta gu bixok genguzen bata zazpitterdieten fanda eta bestie zortziretan fanda. Ordubete bakutxak eitten gauen. Eta monagillo genguzela ba sakristixako atia zabaldu eta betik errezetan. “Joño!, baatik horrek San Franziskon aurpegixa daukena”. “Koño, bai, bastante, e! Igual-igual-igual dok, San Franzisko lakotxia. Igual-iguaal”. “Bai?”, tta “Bai”. Hola egun baten. Hurrengo egunien be fan da taka!, zabaldu ta. “San Franzisko!, San Franzisko!”, da hola. Bestiak ba, nik eztakit ze esan, “De Asís!” edo, eztakit ze esan nutsan, hola. Eta klaro, orduan mezak egoten zien zortzitterdieten da zerian da. Baiña kanpaia jo biher izaten zan zortziak eta larenetan. Zortzirak eta hoge pasautxuen eta mezia hasten zan, kanpantxuek, kanpai txikixa. Eta guri ze eñ oskuen parrokuen arrebiak? Geuk akordau barik etorri tta giltzapien itxi elixan. Ta klaro, ordue ailegau zan, kanpairik pe ez eta ezebez, ta etorri zanian Don Esteban abadia, ha zan egurra emuten euenoi, “Zer pasau da hemen!? Qué ha pasado aquí?” “Hemen ezebez” “Bai, hemen zeozer pasau da. Atiek zerrauta daukatzue ta hemen zeozer pasau da”. Ha jakiñien euen dana, da guk ezebez. Esan oskun: illunkaran erresaixua, orduan illunkaran erresaixua egoten zan eta monagilluek derrigor fan bihar izeten gintzan. Da esan oskun: “Zortziretan akabetan danien hemen, lau monagilluok (...) Fan gintzan, mutikuok, guk zenbat urte eukiko geuen ba, hamar ero? Hamabi ero? Eztakitt, hamar edo hamaika ero hola. Fan gintzan da Jexux haundixena, Lorentxo, Felix da ni txikixena, gaztiena behintzet. “Zu, Jexux, ze esautsazu?” “Nik ezebez”. “Zu, Lorentxo, ze esautsazu?” “Nik ezebez”. “Zu, Felix?” “Nik San Franzisko”. “Zuk ze esautsazu, Paulo?” “Ba nik ‘de Asís’ ero hola”. Ekin (...) egurka, ezpanak be haundittuta, txixa be praketan da...

-Bixoi bakarrik?

-Bixoi, beste bixei ezebez. Joka lurrien. Da orduan fan nintzen ba ni etxera, tabernara fan barik, ezpanak eta danak haundittute nauken da.

Gabatxuena ta, Joakin Gabatxo ta lagunak, edade batekuek, eta haren etxera. Fan nintzan da, “Ze pasau jatzu, Paulo?” Ta “ezebez, parrokuak, Don Estebanek izugarritzko palizie emun dost. Tremendue baiña, neri ta Felixi”. “Joe, hola ezin leike itxi hoei. Hau izen ezkeru republikanue, Ramonen semie edo, hori abadiok hil be eingo leukie”. Baiña holaxe, emunde. Ta bueno ba hortan, etxera fan ostera, ta honek Eustakio San Berdek eta republikanuak zienok han zeren: “Ze pasau jak?” eta “Hementxe”. “Hortarako republikanua izen bihok, republikanua”. Gure aittajuna ta aitta ta ba ez zien, eskumako aldekuak zien haik eta. Deretxa antzak, eztakitzu, hola zerien da. Nik esan nutsen: “Zeu republikanua zara, ala?”. “Bai, amorratua!, amorratua, gaiñera, republikano amorratua”. Gero be monagillo. Gerria hasi ezipazan ondiokan be segururamente monagillo; ondiok pe, e. Ondiokan be monagillo seguramente.

4. Mutikotako denbora elizari lotuta

- **Erref:** ARE-022/004
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:08:15. **Bukatu:** 00:09:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Gerra ostean gazteentzat Adoración Nocturna delakoa egoten zen. Monagilotzatik irten ostean "presidente de los tarsicios" izan zen bera beste hiru urtean. Geroago, handiagotan, luistarren kongregazioan egon zen; neskak Hijas de María izaten ziren. Nagusitu ahala futboleant eta beste gauza batzuetan hasi zen.</p>

Transkripzioa

- Da gero egoten zan beste zer bat, "Adoración Nocturna" baiña gaztiena, "Tarsicios" ero.
- Gerra denporan?
- Gerra ostetxuen. Hortxe gerra zerien da. Ein nindduen monagilotzatik urten eta gero presidente de los Tarsicios. Adoraziño zera. Oraziñuek eta ondiokan buruz, mutikuak. Eta ya beste hiru urtian. Asi ke elixako kupue bastante...
- Beteta ia.
- Kunpliduta antxiñatik elixakue behintzet. Da gero hortik ba gure denporie Luistarrak eta. Gero beste kongregaziño bat euen ba haundixaua, mutikotatik urtendakuen Luistarretara. Orduen dana izeten zan ba goixien seitterdietan jaiki, mezetara fan, bueno. Hillien behiñn, e. Emakumiek eukien "Hijas de María". Eta guk San Luis de Gonzaga, eztakit zela zan. Da han fan bihar izaten zan ba konfesau, komulgau eta dana, ia haunditxuauak eitten. Da gero ekin gintzan ba haundi eiñaz ba batian fubolian...
- Eskolan zenbat urte?
- Eskolan hamalau urte eiñn arte.

5. Gerra denboran, 14 urterekin, Arrasatera fabrikara

- **Erref:** ARE-022/005
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:09:30. **Bukatu:** 00:11:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

Laburpena:

<p>14 urte bete zituenean Arrasaten hasi zen fabrikari lanean. Beste batek eta biek txandaka lan egiten zuten makina batean: bata goizeko seietatik ordu bietara eta bestea ordu bietatik aurrera. Morteroen 375 pieza egin behar izaten zituzten egunean eta, bete ezean, astean zehar gauez joan behar izaten zuten lanak bukatzera. Gerra denboran ondo kobratzen zuten. Gerraostean makina berean jarraitu zuten lanean, baina beste lan batzuk egiten eta lau pezeta kobratzen zituzten egunean. Aitak eta aitonak zerra jarri zutenean bera ere hara joan zen lanera. Pinuarekin kaxak eta tabloiak egiten zituzten.</p>

Transkripzioa

-Eta gero hamalau urte ein (gauenian) Unión Cerrajerara, Mondrauera lanian. Gerra ostetxuan zan hori, al año treinta y nueve. Lelengo ibilli gintzen Garagartzako Kartxel eta bixok makiña baten. Bata goxian eta bestia atsaldian. Ta, klaro, relebuan ibili bihar izeten zan. Relebuan fan

biher zintzen goxeko xeiretarako, hamalau urte mutikuek, bizikletia linterniaz-edo. Da gero ordu bixetan urten. Da bestia sartzen zan ordu bixetan da gabeko hamarrak arte txandaka, ezta. Baiña ein bihar izeten gauen hirurehun da hirurogeta hamabost pieza morteruenak. Morteruek honek bonbanak. Bakotxak tareia, e. Ta itten ez bazan, astien gabez edo fan eta ein in biher. Da mutikuek gintzen ba, e. Da orduen ba lelengoko zerien bastante irabazten gauen, gerra denporan ba bastante, hogetaka duruak, e, astian. Da hareik derrior ein biher. Da gero akabau zan gerrioi da ipiñi gindduen ba han makiñetan lanien, lengo makiñetan baiña beste lan batzuk eitten. Han lanien gabitzela, aste guztie lana ein da lau pezeta egunian, da zapatua aillegetan zanian, "seis por cuatro veinte cuatro". Hogeta lau pezeta kobrau da etxera. Bidien pintxazo bat ero ein ezker, han ebizen ajustadoriak, radixuak eta, esaten oskuen baiña: "Baiña zer? Bokadillo bat ezin zeinketzue jan honegaz. Pintxazo bat itten badozue zorrak". Baiña... Da gero ba ipiñi gauen serria, han Mondrauetik urten da ba aittak eta arotzerixia zela gaukien, ba serria.

-Serria zeñek ipiñi euen?

-Aittajaunak eta aittak. Egurrena, e, ebaittekua. Ta gero ba piñuokin da danok hantxe. Piñuokin da zerien kajak eta ein eta tabloiak eta hola zerian ba, hantxe.

6. Bergara aldeko pilota txapelketan finalista

- **Erref:** ARE-022/006
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:13:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Nagusitu ahala kirolerako zaletasuna hazi zitzaion. Futbolean eta pilotan ibili zen. 17 urterekin Bergara aldeko pilota txapelketan finalera iritsi zen, baina eskuko minez ezin izan zuen finala jokatu. Handik hamabost egunera partida bat jarri zioten Arrasaten zein ote zen gehiago ikusteko. Kartelean hizkiak aldatu zizkion norbaitek eta ordutik "Peon" gaitzizena geratu zaio.

Transkripzioa

-Da gero ia ba haundi eiñaz, haundi eiñaz politto politto ba beste zer batzuk eta.

-Deportian?

-Deportian be dana gustetan jaten. Fubolian, bizikletia be bai tta pelotia. Oiñ, gehixen pelotan, ezta? Da ia hamazazpi urtegaz ero Mondragonesak orduen neu (erueten nindduen) Mondraueko pelotarixokin Arriaranegaz eta Zurduekin da ez zan ondo arregletan da, betik zera eukien, da betik deiketan nusten: "Hi, etorri hai entrenetan, e" Ta beragana fan da pelotan. Da pelotan ba eitten gintzen da ya atara nauen, Bergara mobidu nintzen. Ba, orduan eukiko nittuen hamazazpi urte ero. Hamazazpi, hemezortzi ero. Eibarren jokatzen zan Distrito de Bergara. Da Distrito de Bergaran ba aillegau nintzan ba azkenengo zerera, finalista. Baiña ezin nauen jokatu, eskuko miña. Egun bittan jokatu biha zan, gaur zapatua o jai, eta bixar domekia, ezta. Da ezin jokatu ta suspendidu ein neban eta bestia geratu zan kanpeon. Eta gero handik aurrerako beste gauza bat, hemen Mendikute, Mondrauekua. Mondrauen ipini auen partidua, handik hamabost egunera ero hogeie egunera zein gintzen gehixao ikusteko. Ta

anunziauta: "Ezpeleta, subcampeón del Distrito de Bergara contra Zabala III campeón". Da batek "sub-" kendu eñ auen, da ipintten auen "peón". Oinddiokan be atzo, bueno Karmeni oiñurrenguan esaten egon nintzen, hori Mendikute Mondrauekua hemen bizi da, eta harek esaten dust: "Hombre, peón". Hari geratu jakon betiko izena: "Peón", neretzako. Harek eztust esaten ez Paulo eta ez Ezpeleta. "Hi, Peón, zer, ondo habill?" Geraketan dien motiek holan geraketan dienak. Da gero Bergaran profesional Mondragonesak ipiñi usten partidua debutau eta, baiña eskuak bigunak neuken eta hola zerian.

7. Soldadutza denboran ere pilota txapelketetan

- **Erref:** ARE-022/007
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Denborarekin soldadutzara joatea egokitu zitzaion eta Gasteizen egon zen. Ordurako han eta hemen jokatzen zuen pilotan. Kuartelean Bitor Argiñano beasaindarrarekin elkartu eta bikote gisa txapelketa batean parte hartu zuten. Espainiako txapelketa irabazi zuten eta ordutik eskaera asko jaso zuten. Ondo kobratzen zuten, gainera, 50 duro.</p>

Transkripzioa

- Gero puxkat gehitxuau, gehitxuau, gehitxuau, gehitxuau, etorri nintzen ba soldauxkara. Soldauxkan genguzela ba ia hogeta bi urte-edo. Bueno, orduan hemeretzikin soldau etorri nintzen boluntarixo. Pelotan batien hemen, bestien han. Etorri zerera, Bittorixara, soldauxkan, baiña iñork ez euen jokaketan da. Gipuzkuanua beste bat, Argiñano, Bitor, Beasaingua zan, da bixok. Eta ekin guntsan, eta kuartelian esan oskun: "Koño, porqué no jugáis?" Bueno, ba jokatu. Ta bixok onentxuenka gintzan hemen, eta (...) jokaketan. Eta gero etorri zan Torneo de Federaciones edo GRAVN edo hori, eta arabarrak jokatu bihar euen gipuzkuarrakin. Eliminatoria. Jokatu geuen hemen da hogeta bi eta hogei. Ez, hogeta bi eta hogeta bat galdu gauen. Azkenengo tantue neuk galdu (nauen) eta peridiodistak, Pacorrok, Ezkiagak eta horrek. Pakorrok akordetan naz periodikuan zela ipiñi euen, e. "A pesar de esto, dos guipuzcoanos casi le ganan a Gipuzkoa". Baiña etxakola pentsetan berai, Gipuzkoan, Donostian jokatu bihar gauen, hemen galdu gauen eta gero Donostian. Eta hurrengo jaixan fan gintzan Donostiara, jokatu gauen Donostian eta irabazi guntsen hogeta bi ta hamaxei geuk. Ta gero orduen akarren: "Dos guipuzcoanos eliminan a Gipuzkoa". Dos que estaban menospreciados hemen, en la provincia, Bittorixan soldau etorri, da hemen zela ekin gintzan, da orduan urtian izan zan ba Campeones de España atara zan. Da, klaro, partidu asko etorri jakun, han jokakeketako, hemen jokaketako, eta gaiñera ondo kobrauta, berrogeta hamar duro, e. Berrogeta hamar duro kanpeoiena.

8. Laguardiara pilota partida jokatzer

- **Erref:** ARE-022/008

- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:19:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Behin, Laguardiara joan ziren pilota partida bat jokatzera. Han, mezara joan zen eta apaiz ezagun bat aurkitu zuen. Hark eman zien lo egiteko lekua. Atanorekin jokatu zuen partida eta irabazi egin zuten. Irabazi ostean "famoso" egin ziren eta lagun asko egin omen zituzten. Gau osoa parrandan pasatu eta goizean lorik egin gabe autobusean itzuli ziren Gasteizera.

Transkripzioa

-Da Atxabaletan da jokatu, Mondrauen da be bai, da hola zerien, da gero etorri jakun Laguardiara be. Laguardian zan San Juanetan eta San Pedruetan. Klaro, orduen ez auen oingo moduen automoillik eta motorrik eta ezer. Orduen joan biher zitzen trenien, oiñez ero autobusen. Da goixien igual egoten zan bat, hurrengo egunerarte besteik ez. Da akordetan naz Laguardiara fan San Juan egunien pelotan, da aillegau nintzen goxien autobusien fanda, ta zer, da meza nausittara. Meza nausittara fan nintzen da abade bat ikusi nauen neure laguna. Han auen Seminario Menor, honek abade gaztientzako, eta han auen profesore. Don Salvador Marzana. Neure edadekue zan, ointxe hil zan Txilen, Santiago de Txile edo. Ba ha euen han. Klaro, orduen ea euen hotelik eta zerik "Fondas" bakarrik, fondak. Eta, joño!; mezetan nenguela ikusi nauen. Hori Don Salvador dok, eta horrek arreglauko naxok hemen. Lo be bertan in biha gauen. Eta nirekin nahasi jokatu bihar auen Atano VIII, Azkoittiarra baiña hori euen zerian, Logroñon soldau. Eta mezia akabau zanien etxoin notsan Don Salbadorri tta esan nutsan: Don Salbador, ta "(...), zer dabik hemen?" "Pelotan" "Pelotan? Partidua jokatu biok?" "Bai", tta. "Joe" "Bueno, hemen gabie pasetako ta zer?" "Neu nauen lekuan. Ointxe goazak eta; neu nauen lekuan". Maletioi eruan, fan gintzen da habitaziño bat. Klaro, iñobe enauen nik ezauketan, abadioi bakarrik, eta bazkalostien urten eta han pasio ero zera eiñ eta baiña iñobez, ezaunik ez. Da jokatu gauen partidua ta irabazi gutsen partidua riojanuer geuki. Da gero danak lagunak, danak lagun. Da pasau jakun Atanoi ta bixok, han fan gitzen, afaldu ta urten gauen kanpora. Ta batak, han zurrakapote emuten daue, famosua. "Hala, vamos a la bodega!" Bixok ba famoso gintzen. "Vamos a la bodega, vamos a la bodega, vamos a la bodega". Harrapau gauen erdi, izugarrizko, tremendoko tronpia, da goixien zazpirak, ondiokan bodegan. Da zazpitterdietan autobusa guk, bueltatzeko. Ta geure artian, ze eingo ete juau. Eta bodega baten musua garbittu eta fondara; erretiratzen fan bihar, ez gauen lorik ein baiña. Eta orduen ez auen lekuri eta iñun ez zan egoten baiña, abadia, atia jo eta berak, Don Salbadorrek itxoitten. "Lotsaik be eztaokotzue! Neregaz akabauta jak, e!, neregaz fuera! Aiba maletak eta". "Ez, ez. Pagau barik daukou ondiokan". "Neuk pagaukot eta fuera hamendik, e. Holako Lotsabakoik, jente guztia ohe billa, zuei bixontzako gorde eta oin zatoze hona, zatozen moruan gaiñera!". Bueno, bueno. Da hurrengo domekan, hurrengo domekan ez, San Pedruetan oster. Da autobuseko kobradoria laguna zan. Laguna, bueno, lendik pe puxkat hemen bastante zelan ibiltzen gintzen; da orduan azen autobusak ba bigarren illaria eta hirugarrena zien ba "primera" moruan ero ta bestiak. Eta ha gehixao pagau bihar izeten zan. Kobradoriak esan oskun: "Ya os he

visto esta noche cómo habéis andao, y tumbaros aquí" Ta bixok etzin da hantxe Bittorixara.

9. Navarretera (Errioxa) pilota partida jokatzera

- **Erref:** ARE-022/009
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:19:05. **Bukatu:** 00:21:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Beste behin Navarretera (Errioxa) joan ziren pilota partida jokatzera Paco Logroñoko enpresari eta frontoietako artekariak esanda. Hara iritsi eta Paco horrek ez zuela pilota partidarik jarriko esan zien, aldi berean zezenak jarri zituztela eta. Navarreteko udaletxera joan ziren euren gastuak zeinek ordaindu behar zituen galdetzera. Azkenean sarrera kobratu zuten gastuak ordaintzeko eta jende asko bildu zenez ez zuten arazorik izan.

Transkripzioa

-Gero partiduak hara, hona, hola, ta beste baten Riojara. Navarrete, hortxe Fuenmayor-tik Santo Domingora bittartian hola. Ta Paco, bat zan, aittak ezauketan auena, korredoria frontoikua, da enpresarixua zan Logroñokua. Esan oskun, Andramaixak zien, hillen hamazortzixa ero, dieciocho de Agosto ero eztakit ze izengo zan. Atxabaletan jokatu behintzet eta egun bixan edo hiruen da laugarrenien hara ninddoien. Da etorri nitzen hona da fan nintzen Logroñora, Pacon zerera, frontoira. "Paco, qué, ya estamos aquí". "No, no, yo no puedo organizar porque han puesto toros y yo no respondo de eso". "Y ahora quién nos va a pagar los gastos?" "Allá cuidaos!, pedirle al ayuntamiento". Zeuek gorobozue ba nik eruango zauet. Baeuken kotxie, lagunak ero hola, ta bueno, fan gitzen Navarretera, da bera aiuntamentukuekin. Eta esan utsen, joño, aber gure gastuek eta nok pagau biha dauen. Gero, klaro, ni ibilitta neuen Atxabaletan enpresarixo ta hola, eta esan nutsen: "Baukotzue bilietiek, baukotzue saltzeko?" eta "Bai, zezenenak be bai tta". Han beste riojanuek kontrarixuek be han azen, eta esan nutsen: Ba lelengo partidue horreik jokatu deixela hango bertako batzuk eta emungoutseu irabazten dauenari hamar duro eta galtzen dauenari bost duro. Ezta, batek hamabi pezeta terdi eta bestiek bosna duro. Da gero jokatukou guk, eta bixen bittartian geu egongo gare entradak saldu eta hola. Ifiñi gauen eta jentie asko fan zan. Azkenien gastuek ein gauena ba batek biajie hainbeste, bost duro ero, xei uro ero: bazkaixa, lo eittia ta. Ta bestiak ba Riojakuak zela zien ba haik gutxiao. Ta lelengo gastuetarako kendu ta ondiokan berrogeiña duro ero sobrau jakun. Holakuek...

10. Otxandioko neska batzuekin harremena

- **Erref:** ARE-022/010
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:21:05. **Bukatu:** 00:23:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Beste behin, Santa Marina egunean goizean Bergaran jokatu eta arratsaldean Otxandiora joan zen partida jokatzera. Neskaren bat gustatu eta bertan geratu zen. Neskak Andra Marietan Aretxabaletara ere etorri ziren eta hartu-emana izan zuten. Otxandiora neskongana bizikletaz joaten zen eta lagun egin zuen apaiz batek eskularruak eta bufanda oparitu zizkion negurako.

Transkripzioa

-Otxandixon be fan pelotan. Lelengo jokatu nauen Bergan goxian, Santamaiña, 18 de julio izaten zan. Santamaiña Bergan dau elixa bat, han frontoian jokatu goixien da atsaldien Otxandixon. Ordu bittako trena hartu eta etorten nintzan ba bizikletan. Bizikletan da, etorri nintzan horra, jokatu ta. Hurrengo egunian be geraketako eta hola ta. Bakitzu, gaztie, gaztien kontuak. Neskak pa bastante guapa samarrak pe ba azen da bertan geratu. Ta bategaz bastante amistade edo hola. Gero ba ezebez, gero (itxitta hola) Baiña Andramaixa batzuetan etorri zien aizta bixak hara, Atxabaletara. Momentuan ba beste batzuk erdi nobixak eta, nunguek zien da. (...) "Lagundu eiezu honei neskoi, bestela bakarrik egon biha die ta. Iñor eztabe ezautu be eitten da". Holaxe, eta gero ekin getsan da beti be etorri tta beti be fan da, bizikletan da. Klaro, orduan etorri bihar izeten zan ba, bizikletie besteik ez euan. Trenian; hartu Atxabaletan trena da Villarrealen estaziñuan bajatu eta danok bizikletan. Baiña bueltarakoe ez zan egoten trenik, eta han gabera arte egotia gustetan jakun ba, da negu antza aillegau zanien, akordetan naz han, Don Tomas edo abade bat, guk urten gauen frontoi aldameneko tabernan, han ezauketan gindduen da bizikletak eta. Gero merixendau ta be hantxe, ta abaria be nere lagun haundixa ein zan. Oso haundixa baiña, e. Gabian neskia itxi tta honutzakuan izotz ba eitten euen! Dana zurittuta. "Paulo, hola fan bi za?" "Ze ingot ba?" "Neuk emungotsut" Eta emun ustan bufanda baltza ta guante baltzak. Neuri, e. Lau lagun faten gintzen da. Bastante ondo etorri nintzan. Gero hurrengo domekan hola zerian, baiña harek abadiak detaillia hola, berak emun ustela, eztakitzu?

11. Han eta hemen pilota partidak jokatzeko

- **Erref:** ARE-022/011
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:23:25. **Bukatu:** 00:24:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Han eta hemen jokatu izan zituen partidak: Errioxan, Salamancan, Valladoliden... Ez zuten asko kobratzen baina gazteak ziren eta hara eta hona ibiliz gero gustura. Behin Mirandan partida jokatu eta ez zieten ordaindu nahi. Azkenean gastuak behintzat ordaindu zizkieten.

Transkripzioa

-Gero ba ia Pelotan Rioja aldera ta Salamankara ta leku askota faten gintzan. Peñaranda de Bracamonte ta. Valladoliden be bai, Medina del Campo ta.

-Diru asko irabazten zan?

-Bueno, irabazi. Gaztiek gintzen eta ibilli ezker... Baten Mirandan eñ ostiena. Hemedik eruen. Jokaketan be orduantxe Campeones de España izendakuen. Argiñanok eta beste bat, Uria, eta Bitorixako Okariz, beterinaixue oiñ Irunen dau, ta neu. Jokatu gauen, akabau zan partidue ta. "Joño, geratu zeinketzue?" ta. Geratu bai. Guk ez gauen barbarik diru konturik eta ezer ein. Ta geratu gintzan Argiñano ta bixok. Mirandan, hurrengo egunien jokaketako. Ta hurrengo egunien jokatu gauen, da organizadorioi edo enpresarixuoi edo zer? Da, baiña guk debalde pentsau dou. Debalde? Lo eittia, afaixa, bazkaixa ta dana debalde? Han ibilli gintzan erdi burrukan, eta azkenien emun oskuen, eztakit zenbat emun oskuen baiña behintzet gastuek pagetako. Baiña hor jentiek pentsetan auen pelotan (...) hola tongo antzak eta jentiek, puuu!

12. Elorrioko pilota partidan gertatua

- **Erref:** ARE-022/012
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:24:35. **Bukatu:** 00:25:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Elorrion pilota partidan gertatutakoa. Dirua bere kontra zegoen eta anaiak dirua irabaz zezan galdu egin behar zuela esan zioten. Berak irabaztera zihoala erakusteko frontoitik bere alde jokatu zuen apustua. Partida irabazi ostean, apustua irabazi zuela eta ez zizkioten gastuak ordaindu nahi izan.

Transkripzioa

-Nik hola arrai, mailatxo bat eukitten nauen eta ha pasau ezker ya profesional jokaketako. Bueno, profesional txarra edo gure dana baiña. Elorrixora fan pelotan da anaia enpresarixua ta korredoria zan. Eta beste anaiak pelotan ein bihar euen. Txapiakin etorri kara y kruz eitten, da esan: Bueno, Ezpeleta, galdu in biok eta" "Neuk galdu ez. Nik al bot irabazi. Al bot irabazi". "Ez ba, anaientzako" "Ni neuk al bot irabazi". Bera korredoria zan, da lelengokua esan eban ni gorrixa banintzan ba bestia azula, ezta. Ta orduan diru jokatzan zan "cuarenta colorao" edo "veinte azul" edo gure dana. Anaien aldeko koloria zan azul. "Veinte azul", eta neuk frontoittik berak ikusi daixen irabaztera noiela, "Va!" Akabo, partiduo irabazi nutsan, da orduen ba emuten oskuen gastuetarako ta hoge duro ero. Eta eztoiela emuten, hoge duro, apostia irabazi nauela eta. Erdi burrukan han. Da hola kasuek asko.

13. Ehizako pasadizoak

- **Erref:** ARE-022/013
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:25:50. **Bukatu:** 00:28:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Ehizarako zaletasuna izan du mutikotatik. Orduan erbi bat harrapatzea oso zaila izaten zen, baina beraiek mutikotan bat harrapatu zuten eta herrian harro-harro azaldu ziren. Ehizako pasadizoak.

Transkripzioa

-Kazan be bai?

-Kazan, kazan afiziñue mutikotatik. Mutikuek gintzela hau Bernardiño Arregi ta bixok. Beti kazan ibiltzen gintzen. Fan gintzen baten. Mutikuek gintzela, e. Orduen erbi bat iñok pe ez euen harrapetan. Gaur hemen elefante bat batek harrapauko leukien letxe orduen erbi bat harrapetia zan. Eta fan gintzen Kurtzebarrittik gora, txakurak onak gaukan da, txakurrok eta. Tak!, erbi bat atara auen da. Jaurti guntzan lau tiro. pin-pan!, da pin-pan! da aurrera. Baiña itxuria perdigoiren batek jo eiñ auen da txakurra au-au-au!, ta. Bueltan osteria geuregana. Beste lau tiro: pin-pan!, da pin-pan!, da mutikuak apuntau ta ezebez. Jaurti. Da erbixoi ba besten batek jo eban, perdigoiren batek eta osteria buelta hartu eta osteria geuregana ta. Beratzigarren tiruen Bernardiñok jo. Guk orduan herrixan ha erbixa erakusten munduen dauenik zerik haundixena baiño haundixaua, erbixa. Joe!, jente guztia. Beste baten zan fan bixok fan Kurtzetara..., Kurtzetara be ez, Asensio, Asensio gaiñetik, Atxabaletako mendittik Kurtzetara nittartian usotan. Usotan fan eta mutikuak gintzen, kartutxuek eruingo ba berrogeiña kartutxo ero. Jarri tta. Lelengo (Latan?) egon gintzen eta ezebez. Ta gero handik Asensiora. Asensiora fan eta usuek benga ta benga. Eta auen zereko, Barajuengo abaria kazan. "Mutikuak!, hamendik harutza, e, harutza!" Da aldamenian jarri tta, klaro, orduan etozen, ze esangot, laiñua, eurixa etorten da ba, eurixa goittik behera, ba usuak etozen etorri tta etorri. Baiña dana bat, e, banda bat dana. Hartu ta pin-pon!, pin-pon!, pin-pon! Eta guk benga ta benga ta benga. Ta azkenien kartutxuak akabau jakun. Hartu gittuen, eztakitt, xei uso, zazpi ero. Orduen izen bazan gure aitta ero hola kazan ekixena, hilgo euen ba bostehun uso ero. Handik ba buelta hartu gauen Atxabaletara ta harekin be harro. Beti kazarixen zera hori izaten da, harro, erakutsi, erakutsi.

14. Usotara joanda gertatutako pasadizoa

- **Erref:** ARE-022/014
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:28:05. **Bukatu:** 00:30:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Behin, anaia eta biak Andarto ingurura joan ziren usotara, baina ez zuten alerik ere bota. Beherakoan, Ugaztegin ezagunak zituzten eta askaltzera gonbidatu zituzten. Etxe hartan, aurreko egunean botatako 40 uso inguru

omen zeuzkaten eta 6-7 erosi egin zituzten. Aitak pentsatu zuen usoak beraiek botatakoak zirela. Horren inguruko pasadizoa.

Transkripzioa

-Beste egun baten anaia Pedrito ta bixok, uso denporia zan orduan be ta. Orduan haundixauek gintzen. Da fan gintzen Ugaztegira, Andartora, uso-pase lekura, ezta. Fan da bat bez da bat bez da; bat bez, etorri be ez. Aurreko egunien asko harrapau zittuen. Da gizon bat euen Arauzkua postuen, da hantxe kontuek kontetan. Da illunkadie etorri zanien bajatu gintzen Ugaztegiraiño ta ha Arautzera eta gu Atxabaletara, ezta, bata alde batera eta bestiak beste aldera. Da berutza goiazela ba nik danak ezauketan (nenguen) ba egurrakin da karnazerixan mutikotatik eta. Gero ba pelotan da hola danien. Ugazteiko Fermiñen semiak aurreko egunien berrogeta hamar uso-edo, ez dakit zenbat, berrogetakak hartu zittuen. Da han euken ordurako esegitta ta, "E!, Paulo!" "Ze?". "Atoze barrura, trago bat in-edo" Fan gintzan da han ardaux puxkat atara oskuen da, ez dakitzu, jan edo merixendau edo zeozer. Berbetan. "Ez dozue biher usoik?" "Buuu!" "Merke emungotsuet. Bost pezetan bakotxa, zeuek gurozuenak apartau" Da beitu guntsan anaiak eta bixok. Ze, ze ingou?, ta. Dozenerdi bat hartu, xei edo zazpi-edo. Bueno, hala, hartu gittuen batzuk, eta ia berutza. Aillegau gintzan Atxabaletara ta aitta ba etxoitten, etxoitten. "Zer, pasau dok?" eta, "Ba, puxkat pasau die" "Joño, nastante hartu dozue. Bixar neu naixuek. Nun egon zare?" "Ba han Andartoko atxen aldamenian, baakitzu, Ugaztegirako zerien, edo Degurixarako bidien". Jarritta puestuen da hori gizonoi aldamenian, bueno, beste puestuen. Egon da egon da bape pasau ez, bape pasau ez. Halakon baten berbetan ekin zienien: "Zer, bapez gaur? Atzo enkanbio asko" "Atzo asko?" "Bai, gure seme bi hemen egon zien, nere semiek. Zazpi-edo eruen zittuen da" "Zazpi? illundute gero beko arruan edo hartuko zittuen, hemen behintzet illunketan dauela alkarrekin egon gintzen, alkarrekin apartau gintzen hortik behera ta Ugaztein-edo hilko zittuen" Joe. Aitta etorri zan kabriauta: "Niri gero guzurrik eta engaiñau ez naizue eingo, e! Gizurrik eta engaiñau, e, zeatik eze...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com